

MENDEBALDEKO EKONOMIA KAPITALISTAK ARO POST- INDUSTRIALAREN ATARIAN?

Mikel Zurbano

(UEU eta UPV/EHUko irakaslea)

ASPALDITIK entzun, geureganatu eta gero eta erabilgarriagoa da gizarte edo ekonomia “post-industrial” delako kontzeptua. Gizartea egun ezagutzen ari den bilakaera etengabea eta aldaketa sakonak laburbiltzen dituen adierazpen berri bezain ilun hau, komunikabideetan, dikurtso ofizialetan eta baita herri-hizkuntzan ere, eguneroko hitza dugu.

Ekonomia edo gizarte post-industrialaren atarian gaudela esan ohi denean kapitalismoa etapa berri batean sartu edo, areago oraindik, kapitalismoa desagertu eta berezko ezaugarriak dituen garai berri baten hasiera dela adierazi nahi izaten da; ustegabea edo —sarritan— kontzienteki. Garai edo aro berri horren ekonomi adierazpen nagusia industri ihardueren murriztea eta bere ordeztu zerbitzuen gorakada litzateke.

Hemen ez ditugu ekonomia “post-industrial” omen denaren ezaugarriak aztertuko. Aro berri horretan ote gauden aztertuko dugu, horretarako mendebaldeko industri beherakada eta zerbitzu-ihardueren igoera zein testuingurutan gertatzen den eta ea gertakizun bikoitz horrek kapitalismoarekin

bateginik hazi den industriaren suntsipena ekar ote dezakeen ikusiko dugu.

MENDEBALDEAN INDUSTRI IHARDUERAK BEHERA, ZERBITZUAK GORA

Azken urteotako datuen arabera Mendebaldeko Estatu kapitalistetan izandako gertakizun orokorra dugu industri ihardueren murriztapena eta zerbitzu-ihardueren gorakada. Eremu horretako Estatu gehienetan zerbitzu-ihardueren proportzioa %50etik gora igo da enplegu eta produkzio-mailan azken datuen arabera¹. Adibide aipagarrienak Estatu Batuak eta Kanada ditugu, hauetan zerbitzuetako enplegua lurralde horietako enplegu osoa-

ren %70 izatera iritsi delarik. Euskal Herriko ekonomiaren kasuan zerbitzuetako enplegua guztiaren erdia baino gehiago izatera heldu da².

Aldi berean, baina ez aurrekoaren eraginez alabeharrez, industri ihardueren beherakada nabaria gertatzen ari da erresuma horietan. Bestalde enpleguan neurtutako zerbitzuetako ihardueren garrantzi erlatiboa handiagoa da eta desindustrializazio-prozesua aurreratuago dago erresuma horietako *per capita* produkzio garaia den heinean. Honela bada, hazkunde ekonomikoaren —*per capita* produkzioa adierazleak neurturik— bidetik abiatutako edozein ekonomia garatuk, arestian deskribatutako prozesu bikoitza ezagutuko luke, hots,

*Mendebaldean industri
iharduerak behera ...*



1 Erabilitako datuak OCDE (1985) “Labour Force Statistics” eta “National Accounts” liburuetatik hartuak dira.

2 Ikus “La renta nacional de España y su distribución provincial” (1985). BBV.



... zerbitzuak gora

desindustrializazioa eta tertziarizazioa edo zerbitzu-ihardueren garapen garrantzitsua.

EKONOMIA POST-INDUSTRIALA ALA PRODUKZIO-SISTEMA KAPITALISTAREN ALDAKUNTZA ESTRUKTURALA?

Industria eta zerbitzuen arteko ordezkapen-prozesua edo, autore batzuek dioten bezala, gizarte post-industrialaren eraikuntza gertatzen ari al da, aurreko baieztapenak direla eta?. Nahiz eta kontraesankorra dirudien, erantzuna ezezkoa dugu. Labur bada ere, ikus dezagun kontrako jarrera honen zergatia.

Lehenbizi, hazten ari diren zerbitzu-iharduerak oso desberdinak dira beraien artean. Heziketa, garbiketa edo publikizateko iharduerak oso diferenteak dira elkarrekiko: konbentzioz egindako ihardueren arteko sailkapenaren ondorioz hirugarren sektorean sartzen dira eta ez ezaugarri berdinak izateagatik, hain zuzen.

Bigarrenik, industria eta zerbitzuen arteko osagarritasuna eta elkarrekiko de-

pendentzia gero eta handiagoak dira. Alde batetik, industri produktua eta zerbitzuaren arteko muga ilunagoa da: gero eta gehiago produktuek zerbitzuren bat dute barneratuta saltzerakoan eta, gainera, industri prozesuek zerbitzuak, hots, enpresentzako zerbitzuak, behar dituzte berrikuntza eta konkurrentzi maila ona lortzeko. Bestetik, teknologia berriei esker, zerbitzuak estandarizatzeko baldintzak ezarri dira eta honekin batera, zerbitzuen arloko produkzio-prozesua gero eta hurbilago dago industriaren prozesutik. Gainera, zenbait zerbitzu-merkatuk kapitalaren kontzentrazioa ezagutzen du, erakunde multinazionalak industriaren kasuan bezala eremu honetan ere lehentasuna eskuratzen ari direlarik.

Azkenik estatistiketan zerbitzu-ihardueren hazkunde bezala agertzen dena, aurretik industri en presaren barnean egonik bertatik kanporatutako zerbitzu-iharduerak izan daitezke. Hots, iharduera hori lehen industri sektorean azaltzen zen bitartean, kanporatu ondoren dagokion zerbitzuen sektorean sartzen da: errealitatean zerbitzu-ihardueraren gehikuntzarik gertatu gabe teorikoki zerbitzuen hazkunde bezala kontabilizatzen da.

Badakigu, sistema kapitalista eraldaketa sakonak ezagutzen ari dela horietako erakusle bat ekonomi iharduera desberdinen integrazioa eta elkarrekiko dependentzia delarik. Krisiaren eraginez jazotako ekonomi sistemaren aldaketa estrukturala da. Sortzen ari diren elementu eta osagarri berriak aldakorak baina, era berean, iraunkorak dira eta produkzio-sisteman zuzeneko eta funtsezko eragina dute.

Arlo ekonomikoan aldaketa estrukturala, besteren artean, honako bi jokatibideetan laburtzen da: lanaren izaera, antolakuntza eta bereizkuntzaren bilakaerak, zerbitzu-ihardueren hazkuntza dakar; eta produkzio-sistemaren barneko lanaren zatiketa berriak, antzinako enpresa barneko zatiketa soila ekonomi sistema kapitalista osora zabaltzen du. Guzti hau, informazio eta komunikazioaren teknologia berriek eskaintzen duten aukerari esker izan da posible.


EKONOMIAREN “DESIDEOLOGIZAZIOA”

Beraz, ekonomiaren eraldaketa indartsu baten aurrean aurkitzen bagara

ere, horrek ez du aurretiko bilakaera errotik apurtzen; ezta zalantzan ipintzen ere, ekonomia industriaren ondorengo aro berrira zuzendu dela diotenez baieztatu duten legez. Azaldu denaren arabera mendebaldeko ekonomia kapitalistetan behiala nekazaritza eta industriaren artean izandako ordezkapen-prozesua bezalakorik industria eta zerbitzuen artean gertatuko dela esateak, ez du koherentzia teorikorik eta errealitate ekonomikoa ez ezagutzearen froga da. Are gehiago, produkzio-sistemaren aldaketa estrukturala ez da kapitalak, krisiak eragindako kontraesanak gaindituz, bere metaketa segurtatzeko jorratu eta bultzatu duen bidea baino.

Egun mendebaldeko ekonomiak etapa post-industrialaren atarian aurkitzen direla esateak ez du inolako oinarri teorikorik, zeren industrial ez diren beste ihardueren hazkuntza gertatzen ari bada ere, hau ez dago industri sektorearen dinamika ezereztatzera zuzendua; berau finkatu eta berrindartzera baizik. Hori baieztatzen dute honako joera berri hauek: zerbitzuetako nazioarteko lanaren zati-ketaren hedapenak —zeinaren arabera mendebaldeko erresuma kapitalistak bait dira lider iharduera horietan—, teknologia berriek eta zerbitzu-funtzio batzuen estandarizazioak eskaintzen duten auke-rak, ondasun eta zerbitzuetako merkatuen arteko loturak, ondasun eta zerbitzuen arteko dependentziak eta industri eta zerbitzu-enpresetako antolakuntzaren konplexutasunak.

Finean, industrialdiari hil-kanpaiak jotzean ez da errealitate ekonomikoa ezkutatu baino egin nahi, eta honekin batera ekonomiaren ideologia suntsitu eta lurperatu. Kapitalismo/industrializazio binomio historikoaren amaierak kapital eta lanaren arteko interes kontrajarrien ebidentzia estaliko luke eta horren inguruko eztabaida ideologikoa bere onean utzi, ahaztuta, gizarte-mailan bizi dugun “desideologizazio”-prozesu arinaren ildo beretik abiatuz eta bere oinarria finkatuz.

Bizi dugun eraldaketa-prozesuaren ezagupidea urria bada ere (prozesuaren erdian bait gaude), honen joera nagusiak ezagutzeko tresnak baditugu. Kapitalaren berrantolaketarekin batera hamaika kontrasesan berri eta menpekotasun zahar agertuko zaigu. Horiei teorikoki ere erantzuteko gai izan gaitezen jadanik kritikaren bidetik abiatu behar dugu; esaterako, ekonomiaren “desideologizazioa” bultzatzen duen ideologiari maskarak erantziz. 

EUSKAL HERRIKO HISTORIA

1. Agotak, juduak eta ijitoak Euskal Herrian

Alizia Stürtze

2. Jauntxoak, burgesak eta foruak

Miguel Angel Barcenilla & Iñaki Gonzalez de Garai

3. Euskal Jainko eta Jainkosak, Olentzero eta Sorginak

Julio Caro Baroja

Harpidedun egin zaitez gure liburuak merkeago lortuz

HARPIDETZA—TXARTELA

Izen-deiturak _____

Helbidea _____ Tel. _____

Herria _____ Post.Kod. _____

Bankua/Aurrezki-Kutxa _____

Sukurtsala _____

Kontuaren Zenbakia _____

GAIK argitaldaria / S.Bartolome, 36-behea / Tel. 471304 /
20007-DONOSTIA